

Aitor Ajuriak eta Lide Urrestarazuk irabazi eben Gorbeia Suzieneko lasterketa nagusia

Gorbeia Suzien Skyrunner World Series lasterketea Otxandioko Aitor Ajuriak irabazi eban gizonezkoetan eta Lide Urrestarazu Ordiziakoak andrazkoetan. 21 kilometrokoan, arratiar bat egon zan podiumean, Aner Zuluaga Igarrekoa bigarren eginda eta, andrazkoetan, lehenengo hamarren artean, 3 arratiar egon ziran. **14. orrialdea**



Jon Urutxurtu irabazle Argazki Lehiaketan

Oporrak Arratian: fresko-fresko Arratia errekan izeneko argazkia izan da irabazlea. Zeanuriko Ponportean dago aterata.

Guztira 48 argazki aurkeztu dira. Eurretako laurdena, Arratian aterakoak dira. Izan be, oporrak Arratian be pasau daitezke, ondo baino hobeto argazki horreetan ikusten dan legez. Arratia desbardin bat erakusten dabe; izan be, oporretan, begiradea aldatu egiten da eta begiradeak, paisajea. Fisika kuantikoan legez, argazkigintzan be, begiradeak errealidadea aldatuten dau. Beste modu baten begiratu eta ikusitako Arratia dakarre argazki honeek, beste Arratia bat.

Irabazleak, Jon Urutxurtuk, Euskal Herriko landetxe baten persona birentzako astegoiempasa izango dau saritzat, oporrak edo opor giroa luzatu eta gozatuten jarraitu dagian.

Aurtengo Argazki Lehiaketan partaidetzea ez da handia izan. Oin dala urte batzuk ehundik gora argazkik hartzean eben parte. **8., 9. eta 10. orrialdeak**



DIMA

Mikel Etxebarria dimoztarra ardi moztaille txapeldun

Euskal Herriko Ardi Moztailen Txapelketea jokatu zan urri lehenengoaren 27an Abadiñon eta Mikel Etxebarria dimoztarra izan zan txapelduna maki-neagaz mozteko modalidean. Artaziakaz Lezamako Joseba Ugaldek irabazi eban. Biak sailkatu dira Munduko Txapelketarako. **14. orrialdea**

ARRATIA

Arkitekturea izango dabe gai OEJk

Aurten, Bizkaiko Ondarearen Europako Jardunaldiak arkitekturea hartuko dabe ardatz eta BEGITUren eremuko 8 herritan euren ondarea erakusteko hainbat ekintza antolatu ditue: bisitaldi gidatuak, kontzertua, erakusketak edo ibilbideak egongo dira Arantzazun, Areatzan, Artean, Bedian, Diman, Lemoan, Zeanurin eta Zeberion. **17. orrialdea**

IGORRE

Bonodenda kanpaina hasiko da hilaren 7an

Herriko merkataritzeari bultzadea emoteko helburuagaz, 40.000 euroko inbersinoa egingo dau Udalak, 7.000 bonu eskuragarri ipiniz. Kanpaina, zemendiaren 23ra arte luzatuko da eta bertan herriko 30 komertziok hartuko dabe parte.

Bonu bakotxaren eskuratze kostua 10 eurokoa da eta 15 euroko balioa emongo deutso erabiltzaileari, kanpainari atxikitutako hogeta hamar dendetan. Ez dago bonuak erosi beharrik, dendan bertan, erosketak egiterako momentuan eskuratuko dira NANA aurkeztuta.

Erabiltzaile bakotzak hiru bonu erabili leikez gehienez. **7. orrialdea**

EKINEAN PSIKOLOGIA ZENTROA

NERABEZAROKO ERRONKAK GAINDITZEKO LAGUNTZEA

LAGUNTZEA NOZ ESKATU:

- EMOZINOAK KUDEATZEKO
- ZAILTASUNAK: ansiedadea, autoestimua...
- PRESINO AKADEMIKOA
- LAGUNAKAZ ARAZOAK
- FAMILIA ARAZOAK
- JARRERA EDO JOKABIDE ARRISKUTSUAK

Nerabe eta familiagaz eskuz esku beharrean

Lehendakari Agirre 4, Igorre - 652 702 650
maitealdekoa@gmail.com [ekineanpsikologiazentrua](https://www.instagram.com/ekineanpsikologiazentrua)

EKIN

LAN PUBLIKOAK

- UR ETA SANEAMENTU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57
ekin@ekinsl.eus Igorre (Bizkaia)

Literatura txokoa

AGIRRE ZAHARRAREN KARTZELALDI BERRIAK

Koldo Izagirrek Elkarregaz 1999an argitaratu eban liburu ibili dot buruan egunokaz, ez eidazu gal-detu zergaitik, beharbada amnistia eta askatasuna oin bihurtu diralako estatus politiko barria eta ia non toketan jatan hurrengo ordezkape-na. Baina kartzela askatasunaren antitesia ez dala esan gura izan euskun Agirre zaharrak, eta amorra-tuta zulogintzan dabilen agure bat aurkeztu liburu itzel honen hasike-ran, harik eta presondegiko patioan agertzen dan arte. Aikoan kanpotik barrurako bidaia egin dauan preso boluntarioa:

"—Beraz, Agirre jauna, zuk urteo-tan egindako zulo guztiak ez dira izan presoek kartzelatik ihes egin dezaten, ezta?

—Barkatu, ternó, ez duk konpreni-

tu. Mundua aldatu nahi izateagatik kartzelaratu dutenak, zertarako itzuli nahi izanen du aldatu ez den mun-dura?

—Tira, ba... agian, mundua alda-tzen saiatzeko berriz.

—Eta nork esan dizu hori ezin litekeela kartzelatik egin? Nelson Mandelak hogeita zazpi urte egin zituen kartzelan, eta lehendakari izateko atera zuten. Presorik gabe ezinezkoa da mundua aldatzea".

Agirrek anaia abertzaleakaz, anar-kistakaz, sozialakaz —preso danak ez dira, bada, politikoak— sufridutea aukeratu dau, kartzelarik kartzela ibiltze hori bere askatasun hautua dalako. Koldo Izagirrek personaje bat sortu dau eta eguzki baten an-tzera ipini eleberriaren erdi-erdian. Darion argiak ingurukoengan disti-

ratzen dau eta bera, oster, behe-lainoz egin dagoala emoten dau.

Agirrerren zorokeria aitu ez arren, presoak zein errepresoreak halako errespetu bat deusie, eta Izagirrek hiztegi barri bat erreku-peretan dau beretzat: ebasleak abesleak dira, iraultzaileak arraultzaileak, eta jago-leek hagindu egiten dabe agindu beharrekoan.

Gizateria osoak etorkizunerantz daroan maleta pisutsuenetarikoa da errepresinoarena, kartzelaratu eta igeslariena. Liburu gazi-gozo ho-netan gaiari perspektiba historikoa-gaz eta umore finagaz oratzen jako barroteen askatasunari.

Igor Estankona



Koldo Izagirre

Agirre zaharraren kartzelaldi berriak

Elkar, 1999

288 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri lehen. 29tik urri bi. 5era

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano. (27-3)

Urri bigarrenaren 6tik 12ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano. (4-10)

Urri bigarrenaren 13tik 19ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano. (11-17)
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /
mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik
22:15era orduro. Jaiegunean orduro

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik
22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan
Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era
orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik

21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era
orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era
orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20ra orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-

Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik
21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena,
eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta

jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;
11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,
14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:
06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:
13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 06:45ean eta

08:45ean urteten dau eta Otxandiokoak

16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:15ean

urteten dau.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:30ean urteten dau

eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 15:15ean eta

16:15ean urteten dau eta Otxandiokoak

10:30ean.

Zapatuetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

eta Otxandiokoak 10:30ean.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. Helbidea: Herriko Plaza 24, Artea. Tel.: 94 673 90 13. E-posta: begitu@begitu.eus. Webgunea: www.begitu.eus. Zuzendaria eta kudeatzailea: Iñigo Iruarizaga. Tel.: 649 979 115. E-posta: inigoirua@begitu.eus. Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Tel.: 649 979 112. E-posta: beazpiri@begitu.eus. Erredakzinoa: Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. Webgunearen arduraduna: Asier Abrisketa. Tel.: 626 647 923. E-posta: asierabrisketa@begitu.eus. Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. Banaketea: Garbikuzi enpresa (Dima), Asier Abrisketa (Igorre), Urko Iurrebaso (Arantzazu, Areatza eta Artea) Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). Tiradea: 7.300 ale. Inprimategia: Bidasoa inprimatzeko zentroa. Facebook: Begitu Aldizkaria, Instagram: @begitu.eus, Mastodon: @begitu, X: @BegituEus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkarteenak dira, baina partekatu daitezke Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa). Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuz.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Rally baten esangurea

Klima aldaketea da, agian, giza-terriak aurre egin behar deusan arazorik garrantzitsuena. Haren efektuek, oin, planeta osoari eragiten deusie, nahiz eta askotan urruntasunetik begiratzen deusegun eta berehala bizkarra emoten deusegun.

Datuek eta gertaerek egunero esaten deuskue, eta holan ikusten doguz:

- Uharte batzuetako populazio osoek beren biziguneak hustu beharko ditue urte gitxi batzutan, itsas mailaren igoereagaitik.
- Muturreko fenomeno meteorologikoen ondorioak, ondorio katastrofikoak uriola moduan, suak suntsitutako milaka hektarea, lehortek eragindako giza desplazamentuak, muturreko bero-boladak... gertuago sentiduten doguz, baina ahaztu egiten jakuz barriro gertatu arte.
- Espezieen desagerpena eta

biodibersidadearen galerea planetako bizitzarako ezinbestekoak diran ekosistemak, baita babes- tuak be, arriskuan ipinten diran puntu batera heldu da.

Txosten zientifikoek, NBE lango nazinoz gaindiko erakundeetako buruzagiek eta nazinoarteko eta tokiko liderrek ia egunero esaten deuskue konsumo aldaketak garrantzitsuak izan behar dirala, eta ez dagoala denporarik galtzeako.

Baina gure bizimoduak buruzko datuak beste alde batetik doaz: urtero gainditzen da hegazkinez egiten diran bidaiei maila, era guztietako produktuen konsumo handia ez da gelditu arazoten, erregai fosilak dira oindino be gure ekoizpenaren eta gure bizitzaren oinarri nagusiak; gure hondakinek uharte handiak sortean jarraitzen dabe itsasoetan; iparralde globaleko "bizitza onak" giza esplotazioa eta hego globaleko eremu zabaletako arpilatzea dakar... Eta egoera horren aurrean, norbanakoaren konzientzia hartzea oso garrantzitsua da, bai-

na batzuetan oindino garrantzitsuagoa da konzientzia hartzea eta koherentea izatea maila kolekti- boan eta instituzionalean.

Joan dan urri lehenengoaren 6an "Dimako III. igoera" rallya egin zan, Dimako Udalaren onar- penagaz eta babesagaz, besteak beste. Dimako Energia Komuni- tatetik, Dimatik, Udalarik rallyaren kontrako gure eretxia emon geun- tsan igaz, baina ez dau ezerta- rako balio izan. Aurten, barriro be, klima aldaketaz jaubetzera bideratutako ekimenak aurrera eroateak dakarren kontraesana ikusarazo dogu, autokonsumo energetikoko proiektuak barne, eta, aldi berean, rallya lango ezinbestekoak ez diran eta ho- rreen ondorioz desagertu behar diran jarduerak erraztea.

Zer da rallya Diman? Autoen ibilbideko fauneari eta muntake- teari eragiten deuse, sortean daben muturreko zaratek. Energia fosilaren xahuketea, orduetan, muturreko abiaduretan. Errepi- de orokor baten orduak moztea, auzotarrei eraginez. Belaunaldi barrientzako konsumo eredu bat, autoa, rallyaren adierazpe- nean klima aldaketearen aurkako burrukearen antipodetan eta errazoizko bizi dinamikan dago- zan modeloen eta abiadurearen erreferentziak eskaintzen dituana. Errazoizko bizitza, eta, horreta- rako, rally baten ikusten dogunetik urrun dagozan garraiobideak eta aisialdia irudikatu beharko doguz.

Gaur egun, rally batek be ez dauka zentzurik, baina Dimakoak gitxiago, ondare edo errotze kul- turaletik ez dator-ta. Guztiz kon- trakoa dirudi: Udalak IV. Rallya onartzen badau datorren urtean, zozter irrazionala finkatzen ibiliko da behin betiko, baina gure he- rrian ezarrita.

DIMAKO ENERGIA
KOMUNITATEKO
KOMUNIKAZIO TALDEA

ERETXIA



IRATXE ETXEBARRIA ETXEBARRIA

Bere arrebea

Mikel

Artzaina dan anaiaren be- harrizanari jarraituz hasi zan ardi moztaille ofizioan. Tradizino handia baina etorkizun zalantzagarria. Gaztetasuna zai- netan, ametsak beteteko guraria bihotzean.

Teknika hobetuteko bidean, onenengana hurreratu izan da beti. Ez dau nagirik izan Zeelanda Barria, Australia, Alemania edo Frantzian profesionalik onenen alboan jarduteko.

Mundu guztiko erreferenteak izan ditu bidelagun eta Euskal Herrian, urteen porasuz, ofizio bat baino gehiago dala sinisten dauan ardi moztaille taldea batu dau bere inguruan.

Eta amestu eben, egunen ba- ten izan eitekela posible Euskal Herria ardi moztailen nazinoar- teko lehian kokatzea. Artaziak eta ardi mozteko erropak albora itxita, hasi ziran laguntza bila. Eta 2023an lortu eben Golden Shears World Council osotuten daben 15 nazinoen oneretxia.

Ofizialtasuna lortuta, lehenen- go aldiz, Euskal Herrian, nazi- noarteko ardi mozte txapelketea antolatzeari ekin eutsien. Eta erakarri ditue gurera, Abadiñoko probalekura, munduko onenak.

Ofizioa eta kirola buztartuta, Eskozia, Irlanda, Uruguai, Kata- lunia, Espainia, Gales, Frantzia, Ingalaterra eta Euskal Herriko ardi moztaille onenak lehian ikusteko aukerea izan dogu.

Baina ez hori bakarrik. 2026ko martian Zeelanda Barrian egingo dan Golden Shears Munduko Txapelketarako sailkapen saioa be izan da urri lehenengoaren 27koa.

Eta hau guztiau, ofizioari duin- tasuna emon eta nazinoarteko le- hian gure herria ordezkatzeko lortu dauan ardi moztaille eta artillari talde ameslari bateri esker egin dau Mikelek.

Berak eta nik, aspaldi ikasi gen- duan, ametsak bete egiten dirala, benetan sinistu eta honeen alde lan egitera ausartzen zaranean.

Mikel Etxebarria dimoztarra izango da Munduko Txapelke- tan, Euskal Herriaren izenean lehiatuko dan lehen ardi moztaille euskalduna. Martian Zeelanda Barrian da zitea.

2008. urtean ikasteko egin eban lehengo aldiz munduaren beste puntara arteko bidea. Oin Euskal Herriko ardi moztaille one- naren txapela jantzita egingo dau.

ALKARREGAZ



Argiñatx Mendi Taldea

Argiñatx Mendi Taldea Arantzazuko mendizale taldea da, 100 bazkide inguruk osotua. Oin dala 16 urte sortu zan nagusien eskutik, mendira urtekerak egin eta alkarregaz momentu onak partekatzeako asmoz. Oin dala sei urte, barritz, gazteek hartu eben lekukoa eta taldeari ilusinoa eta jarraipena emon eutsien. Ordutik hona, gure urtekerez gozatzen jarraituten dogu: batzuk jentetsuagoak, beste batzuk, lasaiagoak; baina beti laguntasun eta dibersino giroan. Egun osoko urtekerak dira berezienak: bazkaria, autobusa, musikea eta barreak tarteko. Argiñatx Mendi Taldea ez da klub hutsa; belaunaldiak eta auzokideak, mendia bitarteko, alkartuta mantenduten dituan loturea baino.



LUMATUTEN



IXONE AROMA

Ardi ibili!

Palestinaz idazteko asmoa neukan, baina Urrizek esan ebazan esan beharrekoak aurreko alean. Herrien zapalkuntzaz? Ondo baino hobeto bizi gara beste askoren aldean, baina halantxik dago gure herria be, zapalduta.

Dana dala, barri pozgarria emon euskuen moztailleek igaz: Golden Shears World Councillek aho batez onartu eban Euskal Herriak nazinoarteko lehiaketetan parte hartzea eta zazpi probintzietako kideek ordezkatu ahalko dabe gure herria 2026an Zeelanda Barrian ospatuko dan txapelketan. Han izango dira makinaz zein artaziz euskal moztaille finenak, baita ulea sailkatuten daben artilelariak be.

Garai batean diru iturri zana, kostua eta buruko mina da artzaintzat gaur egun. Hiru bat hile izango dira Bildosolako industrialdean ardi ulea botata egon zala. Auskalo non amaitzen dauan ule horrek.

Egia da bertoko errazearen ulea latzagoa dala beste batzuenaren aldean, baina Gaztelako merinen uleak be ezer gitxi balio dau. Estadutik 23.000 tona inguru bidaltzen dira Txinara lau txakur txikiren truke, ia ez dau ulea garbitu eta eraldatuko dauan industriadetik eta. *Woolgrower* izandakoak non geratu ete dira? Ez ete dau modurik ardi ule hori zelan edo halan erabilteko? Milioi bat ardi daukaguzan arren, soinean da-roaguzan ehunen % 67 sintetikoak dira.

Termoerregulatzailea, biodegradagarria, arina... dan lehen-gaiaren aldeko apustua egin beharko geunke. Hotza ate joka dogun sasoian, artileaz gehitxoago gogoratu eta produkzino lokalaren, ezinbestean txikiaren alde egin beharko geunke, hori da-ta zabor tontorra desagertu arazoteko bidea.

Joan dan domekan Euskal Herriko Selekzinoa hauspututeko aukereaz gainera, ardi uleagaz egindako matazak zein artisau lanak be ezetu ahal izan genduzan Abadiñon. Izan be, mozteko prozesuena ez eze, ardi ulearen inguruko interesa sustatutea be bada antolatzailleen helburua. Ia han ikusitakoetatik ikasten dogun eta ardi uleari bestelako trataera bat emoten deusagun. Asko esango leuke gure herriaz. Ardi ibili!

ZERTZEAN



MARTI JAUNARENA



Nigandik etorriak,
Zuekin ni neu naz
Zuen bitartez biziz
Suak piztuta dirau, betirako
Geu, beti gu

mj

BEGI TXINDORRA

Urri lehenengoaren 20an, giro ederrean, lortu eban Igorrek Inbiu eguneko erronka: euskerearen aldeko giza-kate espiral luzeena egitea, hain zuzen be. Ekintza honegaz jentek erakutsi gura izan eban bere euskerearen aldeko konpromisoa.

Igorreko Udalak eskerrak emon eutsezan parte hartu ebenei. "Euskerea lotzean gaituan loturea dalako, eta herri moduan daukagun nortasuna indartzen daualako, holan erakutsi deusagu munduari: Igorrek eta Arratiak euskerea besarkatzen dogu eta gure bizitza sozial eta kulturalaren erdigunean ipinten dogu!" dino, harro, Olatz Urkiza Igorreko alkateak.

Espirala zelan egin zan ikusi daiteke goitik droneakaz grabautako irudiei esker. Youtuben dagoz, <https://youtu.be/3nOYdyw6R7I> estekan.

Baina Inbiu eguna, ez zan erronka bakarrik izan, egun osoko kontua izan zan: herri bazkaria, herri kirol erakustaldiak eta Andrazkoen Trontza Txapelketea be egon ziran, euskal giroari eusten. Guztira 700 lagun baino gehiagok hartu eben parte. Eta euria egin arren, jente asko jaiaren amaierara arte geratu zan.





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



★ BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Goldor 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com





**Ortodontzia
Implanteak
Estetika**

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Bidebarri 1. behe
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Itxigaitza Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06

Baserriko produktuak, erraldoiak, kalejirea eta herri kirolak Igorreko Garbeko Azokan

Urri bigarrenaren 12an izango da, 10:00etatik aurrera, aurten Garbeko Azokea. Han, ortuariak, gaztaia, ogia, pastelak eta konserbak salduko dabez inguruko ekoizleek eta animazinoa egongo da kaleetan. 13:00etan sari banaketea egingo da.

Erredakzioa

Laguntasuna Erraldioen Konpar-
sea 11:00etan urtengo da Goiko
Plazatik, erraldioen kalejireagaz.
Konparsa honek, figura histo-
rikoetan oinarritutako lau erraldi
berreskuratu ebazan eta kalejirea
egingo dabe. Ostean, ikusgai
egongo dira erraldi horreek, jen-
teak hurretik ikusi dagiazan.

Garbeko Azokan herri kirolak klasiko bat dira eta aurtien azkora erakustaldia egongo da. Azkolaria, Julen Mendieta Lemoakoa, Xabier Garcia "Utu" Dimakoa eta Zornotzako Manex Izagirre eta Done Intxausti izango dira.



Gastronomia izango da Indusiko jaietako protagonistea

Erredakzioa

Urri bigarreneko lehenengo bariku eta zapatua hartuko ditue Indusiko jaiek. Barikuan txokolatea eta zapatuan, baba, berakatz-zopa, tortilla eta ogizko tostada lehiaketa gastronomikoak egongo dira, baita auzo bazkari eta afaria be. Eta jaiei amaierea txokolatea dastatzen emongo deutsee.

Erromeria, auzokoen antzerkia, karta joko txapelketak, musikea eta Palestinako herriari keinua be badagoz jai egitarauan.

Urri bigarrenak 3, barikua

17:00etan, Briska eta Tute Txapelketak.
19:00etan, txitxi-burduntzia.
21:00etan, Eingo.
21:30ean, alkartasun kiñua Palestinari.
22:00etan, txokolatea.

Urri bigarrenak 4, zapatua

12:00etan, mezea; ostein, Gazte Barri jantza taldearen emonaldia.
13:00etan, barauskarria.
14:00etan, Baba Lapiko Lehiaketeta.
14:30ean, bazkaria. Ostein bertso-lariak: Ibai Amillategi Omaetxebarria eta Ander Elortegi Garatea.

17:00etan, umeentzako ekintzak.
19:30ean, Berakatz-zopa, Tortilla
eta Ogizko Tostada Lehiaketea.
20:00etan, afaria.
21:00etan, Jainaga eta Narbaiza-
gaz erromeria.
22:00etan, auzokoen antzerkia;
ostean, zozketea eta txokolatea.



Bertsolari arratiarrak Arteako Herriko Bentaren jaietako bertso-afarian

Herriko Kultur Txupina, Faxismoaren eta Arrazakeriaren Aurkako Txupina izenpean, astegoiene bateko jaiak antolatu ditu Arteako Herriko Bentak, "jaiak bai, burrukea be bai" ereduari jarraituz.



Erredakzioa

Faxismoa eta arrazakeriaren kon-
trako txupina, Aita Mari Mediterra-
nean erreskateak egiten dituan
itsasontziko eta Palestinako ki-
deek botako dabe. Ostean Pales-
tinako herriari omenaldia egingo
deutsie eta Arantzarte jantza tal-
deak emonaldia eskainiko dau.
Ondoren, 18:30ean, Hontzak
Bilboko konparsearen Hontza-
rangak animauko dauz kaleak
eta 21:00etan, Radio Revolucion
taldeak kontzertua eskainiko dau.
Radio Revolucion taldeak, cum-
bia, ska eta reggae estiloko mu-
sikea egiten dau mundu osoko
baina batez be herri eta kultura
indigenen alde.

Zapatuko ekintza nagusia bertso afaria izango bada be, goizetik hasiko da jaia. 11:00etan, ondo pasetako umeen txandea izango da eta Zastaparrak Asti Taldekoakaz olgetan ibiliko dira umeak goizean zehar. Bazkalostean,

16:00etan, Igel Txapelketea jokatuko da eta ostean 18:00etan, Mikel Larreak egiten dituan "Cochecitos de mierda"ren lasterketea egongo da. Bertso-afaria 21:00etan izango da. Arantzazuko Aiala Irurtia, Igorreko Ekhi Zuluaga, Dimako Enara Gallastegi eta Arteako Iradi Barrenetxea bertsolari gazteek botako dabez bertsoak. Bertso afairako xartelak Herriko Benta tabernan dagoz salgai.

Domekan, hilak 5, truke eta bigarren eskuko azokea egongo da. Parte hartzeako aldeztasunetik 652 749 736 telefonora deitu edo idatzi behar da. Eguerdian, 12:00etatik 15:00etara, Unai EPs-k musikea ipiniko dau, "pin-txadea", jai giroa ez daiten faltau. Arrastiko 17:00etan, Euskal Herriko Casteller taldeak giza torreak egiteko tailerra eskainiko dau. Amaituteko eta jaietarako esateko txokolatea egongo da bertaratzeko diranentzat.

ARTEA

Ekologia, Autogestioa eta Osasuna V. Jardunaldiak Arteako Basoa etxean

AskeBizi Arratien taldeak antolatu ditu jardunaldiok urri bigarrenaren 3, 4 eta 5erako.

Erredakzinoa

Egitarauan medikuntza alternatibako berbaldiak eta Arratian zeharreko ibilbideak, txango botanikoa eta ur sulfuroso eta metal uren ingurukoak, dagoz.

Barikuan, Pedro Rodenas medikuak *Osasunaren oinarriak* berbaldia eskainiko dau; Mireia Ruiz terapeuteak, *Ayurveda etxean, erraza eta hurbila* eta Alfonso Esteban yoga irakasleak *Yoga eta meditazioa*.

Zapatuan, goiz osoan zehar, 09:00etatik 14:00etara, Arratiatik ibiliko dira jardunaldietako partaideak txango botaniko bat egiten. Arrastian barriz, hiru berbaldi egongo dira. Belen Igual medikuak *Medikuntza alopatikoaren yatrogenia* izenekoa egingo dau; Angel Borrell medikuak *Elikadura gordina eta beronen onurak*

eritasun ohikoenetan eta Xavier Uriarte medikuak arimearen elikagaien gainean egingo dau berba. Ostean, 21:00etan, jantzan egiteko musikea egongo da.

Domekan, ur sulfurosoak eta metal uren onurak jakiteko txangoagaz hasiko da eguna. Ostean, herri sendagaien erakusketaldia

egongo da eta 13:00etan, Patricia Alvarez medikuak *Ahotsa eta isiltasuna* hartuko dauz berba. Ostean, talde bazkariagaz emongo deutsee amaierera jardunaldiei.

Ostatua hartzeako aukerea dago. Horretarako *askebiziarrien@gmail.com* helbidera idatzi behar da.



IGORRE


Kiñun egingo da Euskal Herriko Pegatineroen XXIII. Topaketea

Urri bigarrenaren 4an, zapatua, Euskal Herriko Pegatineroen Elkarteak antolatutako topaketearen hogeta hirugarren edizinoa ospatuko da Igorreko Kiñu Gaztetxean.

Erredakzinoa

Pegatinen bildumagile, zale zein interesdun edonor hurre-ratu ahal izango da topaketara, norbere pegatinak erakutsi eta besteenak ikusteko. "Animau eta ekarri etxeko kajoietan galduta daukazuezan pegatinak!", dinoe Igorreko Gaztetxetik.

Topaketea eta pegatinak ikusi eta trukatzeko aukerea 11:00etan zabalduko da. Euskal Herrian mobimentu sozial eta politiko desbardinek pegatinak egiteko kultura handia izan dabe atzen hamarkadetan eta mota horretako eranskarriak izaten dira nagusi topaketan. Ha-ta guzti be, musika taldeen eta bestelango alkarte batzuen pegatinak be egongo dira, besteak beste. Topaketea goizean zehar egingo da eta 14:30ean bazkaria egingo da. Honetarako lekua *pegatina-topaketa@gmail.com* helbidera idatzita egin daiteke. Menu bega-noa be badago aukeran eta hau zehaztu behar da mezuan.



ZEANURI

Altzustan sanmigelak ospatuten jarraituko dabe



Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 29an da San Migel eguna eta egun horretan mezea eta txistulariakaz ospatu eben eguna Altzustakoek, baina, betiko lez, hurrengo astegoie-nean ospatuko ditue auzoko jaiak.

Zapatua, urri bigarrenak 4, izango da egun handiena. 14:00etan, auzo

bazkaria egingo dabe eta bazkalos-tean, 17:00etan, Briska Txapelketea jokatu-ko da. 17:30ean, Zeanuriko Kofradien Arteko Bola Txapelketea. Ostean, 19:00etan, erromeria Kittu taldeagaz egongo da eta jantza eta jantza artean, mokautxo indarrak berreskuratze-ko.

Hurrengo egunean, domekan, Mus Txapelketea jokatu-ko da 16:30ean.

IGORRE

Eskolako jolaslekuko lanak amaitu dira



Erredakzinoa

Inazio Zubizarreta ikastetxeko jo-laslekua barritzatzeko lanan atzen fasea amaitu da. Udalak 240.000 eurotik gorako inbersinoa egin dau 898 metro koadroko jo-laslekua barritzatzeko. Jolas barriak ipintez gainera, oinarrizko azpie-gituretan be hobekuntzak egin dira.

Jolaslekuak gun- bi ditu. Lehe-nengoan, torre aktibo handi bat, oztopo zirkuitu bat eta bizikleta eta patineteentzako *pumptrack* ibilbidea ditu. Beste gunean, ume txikientzako jolasak dagoz: tunel pasabidea, torrea, zubia, sarea,

tirrista eta kulunka hirukotxa, besteak beste. "Ez dogu bakarrik jolasleku bateri buruz berba egi-ten, alkarbizitzarako, jolaserako eta ikaskuntzarako leku bateri buruz baino. Gure umeak inguru-ne erakargarri, seguru eta inklu-sibo baten haztea gura dogu. Hezkuntzan inbertidutea, Igorren inbertidutea da" azaldu eban Olatz Urkiza Igorreko alkateak.

Azpiegitureari jagokonean, drenatze sistemak eta uri altza-ri barriak ipini dira, bankuak eta itzal elementuak tartean; eta zoladurea be barritzau da kautxu irristagatxa eta bedar naturala gehituta.

AREATZA

Areatzak Euskal Jaia ospatuko dau urri bigarrenaren 11n

Udako jaiiez gainera, udagoiengan be jaiak ospatuten dira Arantzazun, sanfaustoak. San Fausto eguna urri bigarrenaren 13an da, aurten astelehena, eta aurreko astegoiengan, barikutik hasita, ospatuko dabez jaiak.

txartelak.

Urri bigarrenak 10, barikua
21:30ean, Cover Band taldearen kontzertua.
00:30ean, DJ Gomi eta DJ Bitxota.

Urri bigarrenak 11, zapatua
09:00etan, Jose Luis Atxutxa Mu-
gari Bira plazatik urtenda.
14:30ean, baba-jana.
16:30ean, DJ Jonkas eta Briska
Txapelketea.
21:30ean, karaokea Herrikoan.

Urri bigarrenak 12, domekea
 10:30ean, mezea.
 11:00etatik 15:00etara, Gure 5.
 Azokea.
 12:00etan, *DesOrekatua* magia
 ikuskizuna.
 13:15ean, Arbasoak *Kantu kon-
 tari* kontzertuan.
 18:00etan, Ganso&Cia-ren *Wel-
 come and Sorry* kaleko antzerki
 ikuskizuna.
 19:00etan, txokolatea.

Bazkarirako txartelak Monteron eta Herriko Tabernan dagoz salgai urri lehenengoaren 9ra arte. Nagusiek 12 euroan eta umeek 6 euroan erosi ahal izango dabez



Euskal jairako erropak behar baditu nonok, Nerea Zuloagaren Marimailegu proiektuaren bitartez lortu leikez. Urriaren 1, 2 eta 3an Txokitoan egongo da Zuloaga 17:00etatik 20:00etara erropak aukeratzen laguntzeko. "Eta gogoratu, erropak aukeratu, gozatu eta itzuli behar izaten dira beste batek erabili ahal izateko" dino Zuloagak.

Ondarearen Europako Jardu- naldiak

Hurrengo egunean, domekan, hilak 12, 12:00etan, herrian zehar, Angel Larrea historialariak gidatutako *Areatza mendeetan zehar* ibilbidea be badakar egitarauak. Ibilbide hau Ondarearen Europako Jardunaldien barruan dago eta parte hartzeako izena emon behar da aldeztu aurretik udaletxean 94 673 90 10 telefonora deituta edo areatzakoudala.aretza@bizkaia.org helbidean. Hurrengo domekan ibilbide bera egingo da baina gaztelerazko azalpenakaz.

Erredakzioa


rea hilaren 8ra arte dago zabalik taberna honeetan: Bainuetxea, Batzokia, Bixer, Eguzki, Hagina eta Ixua, 22 euroan. Aukera beganoa be badago Hagina tabernan. Osteen, 16:30ean Aikopeko, Aikoren proiektu barriagaz kantaldia eta 18:00etan Aikogaz jantzaldia egongo dira. Aiko euskal jantza eta musika taldea da. Jantza tradizionala ikertu, barritu eta plazara erooten dau, herritarrei gozara-zoteko eta partekatzeko aukerea emonaz. Tailerrak, ikastaroak eta jantzaldiak eskaintzen ditu, eus-

Bazkaria 15:00etan izango da.
Bazkariko txartelak erosteko auke-

IGORRE

Igorreko komertzioaren aldeko kanpaina hilaren 7tik zemendiaren 23ra

Igorreko Udalak eta AME merkatarien alkarteak, Bonodenda kanpaina ipiniko dabe martxan urri bigarrenaren 7tik zemendiaren 23ra.



Oingoan, 7.000 bonu urten-go dira herriko komertzioetan erabiltzeko, aurreko kanpainan urtendako bonu kopuru bikotxa, kanpaina bi baten egiteko asmoa-gaz. Betiko lez, bonu bakotxaren eskuratze kostua 10 eurokoa da eta 15 euroko balioa emongo deusko erabiltzaileari, kanpaineari atxikitako dendetan.

Bonuak ez dira fisikoak izango eta erosketak egiterako momentuan eskuratuko dira NANA aurkeztuta. Bonu bakoitza behin bakarrik erabili ahaliko da kanpaineari atxikitako saltokietan eta ezin daitezke guztira hiru bonu baino gehiago erabili.

Erredakzioa

tika, Axular Herriko Taberna, Bea Fruta Denda, Bizarginak, Bizkor Merkatua, Decoracion y Pintura Igorre, Edova Elektrogailuak, Egibe Salon Belleza, Ferreteria-Cerrajería Iru Deko, Frutas Pino, Garden Igorre, Goloski, Ilestyle, Jaio Arropa Denda, Kili-Kili, Larrautxu Arropa Denda, Lorane, Maran Kiriolak, Marrak Paperdenda, Olaetxe Optika-Audio Zentrua, Origen

Komertzioak: Aldeiturriaga Oinetakoak, Ander Alday Ileapaindegia, Arrabike, Arratek Informa-

EKINEAN PSIKOLOGIA ZENTROA



**NERABEZAROKO ERRONKAK
GAINDITZEKO LAGUNTZEA**

LAGUNTZEA NOZ ESKATU:

- EMOZINOAK KUDEATZEKO
- ZAILTASUNAK: ansiedadea, autoestimua...
- PRESINO AKADEMIKOA
- LAGUNAKAZ ARAZOAK
- FAMILIA ARAZOAK
- JARRERA EDO JOKABIDE
ARRIKUTSUAK

Nerabe eta familiagaz eskuz esku beharrean

Lehendakari Agirre 4, Igorre - 652 702 650

maitealdekoa@gmail.com

[ekineanpsikologiazentrua](https://www.instagram.com/ekineanpsikologiazentrua)


BEGITUREN OPORRETAKO ARGAZKI LEHIAKETE

'Oporrak Arratian: fresko-fresko Arratia errekan' izeneko argazkia, irabazle

Jon Urutxurtuk Zeanurin atera eban argazki irabazlea, Arratia errekan, Ponportean. Guztira 48 argazki aurkeztu dira, mundu zabalean zein Arratian egindakoak. Arratia errekea, gure bailararen ardatza, ederra eta biodibersidade handikoa izateaz gainera, aisialdiko topagune eta aterpe klimatikoa be badala ekarten deusku gogora Urutxurturen argazkiak. Teknologia eta sare sozialen sasoian, aisialdia be globalizau dan sasoian, herriko errekan bainu bat hartzearen benetako plazerra dala erakusten deuskue erretratautako mutikoen begiradek. Fresko-fresko, Zeanurin.



Jon Urutxurtu zeanuriztarrak ateratako argazki irabazlea.



Arrantzan Galizian. Onintze Petralanda.



San Urbanera bidean. Lourdes Intxaurreaga.



Itsasargia. Aitor Arnaiz.

Aurten, 48 argazki aurkeztu dira guztira BEGITUREn Oporretako Argazki Lehiaketara. Eurretako laurdena, 12 argazki, Arratian ateratakoak izan dira, gainontzekoak mundu zabalean



Egunsentiaz disfrutatzen. Maider Larrea.



Hormara begira. Eneritz Atutxa.

EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN ETA SARI POTOLO HONEEK IRABAZI!

Begitu-lagun egin ezkeru, edo Begitu-laguna izan eta barri bat ekarten badozu (biak sartzean dira zozketan) abenduaren 20ra arte arte bi sari honeen zozketan parte hartuko dozu:

A

Zeanuriko Zuhaitz Etxeetan gaua eta gosaria lagun birentzako.

Ondino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:
Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____
Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
Aukeratu urteko kuotes: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

B

GARENA

Dimako **Garena** jatetxean **Gurea** menua lagun birentzako.



Mont Blanc-eko itzulia. Illart Gumuzio.



Zarautz. Kepa Agirre.

begitu
eus



Psicotecnicoganguren
psikoteknikoa

- Gida Baimenak
- Animalia Arriskutsuak
- Nautika
- Arma lizentziak
- Segurtasun pribatua
- Garabiak

ORDUTEGIA
Asteazken eta ostegunetan
09:00 - 13:00
Astelehen, astearte eta ostegunetan
16:00 - 20:00

www.psicotecnicoganguren.eus - 611 72 88 55
info@psicotecnicoganguren.eus



Promozioak, pisuak,
etxeak, baserriak,
lurak, txaletak...

**ARRATIAKO BAZTERRAK
ZEIN POLITAK DIREN!**

Lehendakari Agirre, 8 behea · 94 631 80 04 · IGORRE
igorre@inmolarrea.com
www.inmobiliarialarrea.com
WhatsApp 660 452 420

**ARRATIAN
GOZATU
BIZI
DANTZATU!**

DANTZA ESKOLAK DOMEKA ARRASTIETAN

URRITIK EKAINERA, 20€ HILERO

URRIKO KLASEAK AREATZAN DOAN PROBATZEKO

***18-30 URTE BITARTEKOAK DEBALDE URTE OSOA**

**IKASTAROAK, AREATZAN HASI ETA GERO ARTEAN,
IGORREN, DIMAN ETA ZEANURIN JARRAITUKO DU**

AIKÖ DANTZA ESKOLA

634 423 539

www.aiko.eus



BONODENDA



**ETORRI
IGORRERA
EROSTEKAK
EGITERA!**

URRIA 7 - AZAROA 23

**MERKEAGO
%33**

**15€ KO
BONOA 10€**

**7000
BONO**



**BONOA
APLIKAZIOAN**



DENDAK

ALDEITURRIAGA OINETAKOAK
ANDER ALDAY ILEAPAINDEGIA
ARRABIKE
ARRATEK INFORMATIKA
AXULAR HERRIKO TABERNA
BEA FRUTA DENDA
BIZARGINAK
BIZKOR MERKATUA
DECORACIÓN Y PINTURA IGORRE
EDOVA ELEKTROGAILUAK
EGIBE SALON BELLEZA
FERRETERÍA-CERRAJERÍA IRU DEKO
FRUTAS PINO IGORRE
GARDEN IGORRE
GOLOSKI
ILESTYLE
JAIO ARROPA DENDA
KILI KILI
LARRAUTXU ARROPA DENDA
LORANE
MARAN KIROLAK
MARRAK PAPERDENDA
OLAETXE OPTIKA-AUDIO ZENTRUA
ORIGEN BELLEZA SALUDABLE
ORRIE
POLITTE!
REKALDE HARATEGIA
SKA OINETAKO KONPONKETA
SORMENKU
ZAZPI HAIZETARA

***EROSKETA NAN-REKIN**



**Euskara
eroso ikasi
eta bizi**

aek euskara
praktikoa

Arratiako AEK

EUSKARA-IKASTAROAK

Matrikula zabalik

- Maila guztiak, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordutegi zabalak

Elexalde 10, Igorre

94 631 56 57/ 607 632 916 - arratia@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzak,
maila egiaztatuz gero.

Arratiako udal guztiek
diruz lagunduta

XLV GARBEEKO AZOKA 2025 IGORRE

URRIAK

12

OCTUBRE

10:00

AZOKAREN IREKIERA
APERTURA

11:00

"LAGUNTASUNA ERRALDOIEN
KONPARTSA"-REN KALEJIRA GOIKO
PLAZATIK
PASACALLES DE GIGANTES DESDE EL AYUNTAMIENTO

12:00

"LAGUNTASUNA ERRALDOIEN
KONPARTSA"-REN ERAKUSTALDIA
EXHIBICION DE GIGANTES

12:10

HERRI KIROL ERAKUSTALDIA
EXHIBICION DE HERRI KIROLAK


13:00

SARI BANAKETA
REPARTO DE PREMIOS

IGORRE

bbkē

Garbeko
Azoka
Elkartea



GURE 5. AZOKA ARANTZAZU

URRIAK 12, DOMEKA

11:00-15:00



*ARRATIKO ARTISAUAK, EHUN-ERROPA BARRIAK,
BIGARREN ESKUKO MUSIKA, LIBURUAK ETA JOSTAILUAK*

12:00ETAN "DESOREKATUA". ANDONI MAGOA.
FAMILIA IKUSKIZUNA

13:00ETAN ARBASOAK "KANTU KONTARI"
KONTZERTUAN



ARANTZAZUKO JAI BATZORDEA

Arantzazuko Herri Batzordea
Gure
ikastetxeak
Euskoalduna
kalidadezkoa
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



BOLA-JOKOA

Zeanuriko Kofradien Arteko Bola Txapelketea Altzustan jokatu da urri bigarrenaren 4an

Jon Urutxurtu

Urri bigarrenaren 4an, zapatuan, arrastiko 17:30etik aurrera Altzustako bolatokian jokatu da Zeanuriko Kofradien Arteko Bola Txapelketea.

Udalerria osotzen daben zazpi kofradietako ordezkariak hartuko dabe parte taldeka jokatzen dan txapelketa honetan: Altzuak, Alzustak, Asterriak, Ibarguenek, Ipiñaburu-Undurragak, Otzerinmendik eta Uribek.

Udan bakarkako txapelketa jokatuzan eta Jaime Gartzia jantzi eban txapela. Urri bigarrenaren 4an taldekakoa jokatu da. Talde bakotxa 4 bolarik osotuta egongo da, Zeanuriko auzune bat ordezkatzuz; bolari bakotxak 6 jaurtiketa egingo dauz, eta taldekide guztiek botatako txirloen batuketea hartuko da kontuan; beraz, txirlo gehien botaten dauan kofradia izango da irabazlea eta bardinketea egongo balitz, "gerrea" jokatu litzateke.

Igaz Alzustata izan zan irabazlea, 18 txirlo botata. Bigarren Otzerinmendi eta Asterria sailkatu ziran, 16 eta 15 txirlogaz hurrenez hurren.

Tradizino handiko kirola

Bola-jokoa gaur egun kirol minoritarioa bada be, antxina oso ezaguna eta zabaldua egoan joko zan. Azken urteetan ehunka bolatoki galdu dira eta, batez be, belaunaldiz belaunaldi kultura transmisioa eten da.

Bola-joko modalidade asko dagoz Euskal Herrian zein estaduko beste toki batzuetan. Bizkaian bakarrik zenbatu daitezke hamabost bat modalidade, batzuk da borduko desagertuak.

Modalidade bat Zeanurin jokatzen dana da. Udalerri honetan gaur egun dagozan bolatokiak auzune edo kofradietako ermita batzuen ondoan dagoz, eta urtean behin jokatzen da bertan, ermitearen jaiegunean.

Zeanuriko bolatokiak 19 eta 26 metro arteko luzeerea daukie gitxi gorabehera, eta 2,50 eta 3,50 metro arteko zabalerea. Jaurtiketearen eremuan, boleagaz jo behar dan



ohol bat dago, eta boleak ez badau egur horretan jotzen edo taularen marrik harago jotzen badau, sinka da, eta jaurtiketea ez da baliozkoa. Ezkerraldean, bolatokiaren erdiaren inguruan, hesola txiki bat dago —katxine—, eta jaurtiketeak hesola horretan jotzen badau, jaurtiketa hori be ez da baliozkoa.

Bolatokiaren amaieran lau txirlo ipinten dira, hiru tamainu berekoak —40 cm ingurukoak— eta beste bat txikiagoa —20 cm ingurukoak—, azken hau besteen ezkerraldean. Txirloen atzean zubile izeneko enborra dago, bolatokiaren amaiera edo topea adierazoten dauana. Boleak ez badau muga hau jotzen jaurtiketea baliobakoa izango da eta txorra izan dala esaten da. Topearen ondoan persona bat ipinten da, normalean mutiko bat —etxerue—, bolaria dagoan tokira bola itzultzeaz eta txirloak zutunik bere lekuan ipintzeaz arduratzen dana. Jokoaren amaieran eskupekoa jasoten dau irabazlearen eskutik.

Jokoa txirloak botatean datza eta bakotxak puntu bat balio dau. Boleagaz ezkerreko txirloa botaten bada, ez da punturik lortuko. Puntu baliobakoa izateko ezkerreko txirlo txiki hori hiru handietako batek bota behar dau.

Bolariak jokatu aurretik, dirukopuru txiki bat itxi behar dau —euro bat edo bi—, arrapea izeneko. Ordaindu ondoren, hiru bola jaurtitzeko eskubidea dauka eta irabazleak parte-hartzaile guztiek jarritako dirua eroango dau.

Zeanurin arrapea jokatzeaz gainera, herriko banakako txapelketa jokatzen da honako bost bolatoki honeetan: Altzuan, Undurragan, Ipiñaburun, San Juston eta San Lorentzon. Lehen hiru sailkatuek banakako finala jokatu dabe San Lorentzo bolatokian jaiegunaren biharamunean. Aurtengo txapeldua Jaime Gartzia izan da.

Denporaldia amaierara emoteko, Alzustako San Migel ermita ondoko bolatokian taldekako txapelketea jokatzen da: Kofradien Arteko Bola Txapelketea.

MENDIA

Aner Zuluaga Igorrekoa, 21 Kilometroko Gorbeia Suzienen podiumera igon zan

Erredakzinoa

Gorbeia Suzien Skyrunner World Series-eko lasterketea Otxandiko Aitor Ajuria irabazi eban gizon-nezkoetan eta Lide Urrestarazu Ordiziako andrazkoetan, marka barria ezarriz (3:34:16). 21 kilometroko lasterketea, Finley Grant-ek eta Leire Fernandezek irabazi eben. Igorreko Aner Zuluaga Intxaurbek bigarren egin eban.

32 kilometroko lasterketan, lehenengo arratiarrak, Zeanuriko Unai Intxaurrea 22garren (3:30:11), Zeanuriko Eukeni Egileor 34garren (3:42:48) eta Dimako Markel Ortuondo 38garren (3:44:42) izan ziran. Andrazkoetan, distantzia honetan parte hartu eban arratiar bakarra Deiene Gurtubai Zameza izan zan, 42garren eginda.

Arratiarren aldetik partaidetzea handiagoa egon zan 21 kilometroko lasterketan. Lehenengo arratiarrak, gizon-nezkoetan Aner Zuluagaren ostetik, Dimako Xabier Gonzalez



Goti, bosgarren; eta Igorreko Markel Irigorri hamaikagarren izan ziran eta andrazkoetan, Zeanuriko Itsasne Bengoetxeak laugarren egin eban; Igorreko Oneka Aierdik, zazpigarren eta Igorreko Maialen Zautuak berderatzigarren.

32K. Gizonak:

- 1-. Aitor Ajuria (03:01:16)
- 2-. Marcos Villamueva (03:02:37)
- 3-. Gontzal Murgoitio (03:02:59)

Andrak:

- 1-. Lide Urrestarazu (03:34:16)
- 2-. Naiara Irigoyen (03:42:54)
- 3-. Marta Martinez (03:48:17)

21K. Gizonak:

- 1-. Finley Grant (02:01:57)
- 2-. Aner Zuluaga (02:05:49)
- 3-. Hodei Lujanbio (02:08:17)

Andrak:

- 1-. Leire Fernandez (02:27:53)
- 2-. Oihane Alonso (02:52:10)
- 3-. Uxue Barrutia (02:53:05)

ARDI MOZTAILEEN TXAPELKETE

Mikel Etxebarria arratiarrak irabazi dau Euskal Herriko Ardi Moztaileen Txapelketea

Abadiñon jokatu zan urri lehenengoaren 27an Euskal Herriko Ardi Moztaileen Txapelketearen lehen edizinoa eta makinazko modalidadean, Dimako Mikel Etxebarriak jantzi eban txapela eta Zeelanda Barrian egingo dan Munduko Txapelketarako sailkatu da.

Erredakzinoa

Holan, Munduko Ardi Moztaile Txapelketan, Euskal Herriaren izenean parte hartuko dauan lehenengo personea dimoztarra izango da.

Euskal Herri eta nazinoartetik joandako ardi moztailen topagune izan zan Abadiño eta EAMEk (Euskal Ardi Moztaileen Elkarte) sano balorazino ona egin eban. "Oso pozik eta asebeteta gagoz jasotako erantzunagaz eta egunean zehar izandako bizipenakaz" azaldu eben. Makinazkoaz gainera, Euskal Herriko Txapelketako artazizko modalidadea be jokatu zan; baita Open Txapelketak modalidade bietan, eta hor nazinoarteko moztailerek hartu eben parte.

Open mailan irabazleak honeek izan ziran: artaziakaz, Joseba Ugal-



de Lezamakoa; makineagaz, Llyr Evans galestarra, eta Senior mailan, makineagaz, Ben Scott irlandarra. Euskal Herriko Txapelketan, makineagaz Mikel Etxebarria izan

zan irabazlea eta artaziakaz, Ugalde. Etxebarria eta Ugalde, Munduko Txapelketarako sailkatu dira eta Zeelanda Barrian izango dira martian, Euskal Selektzioagaz.

ATLETISMOA

Youness Assehli: "Itzuli egin naz eta erritmoa berreskuratzen nabil"

Denporaldi baten lehiaketetatik aldenduta egon ostean, aurten Zornotza CD atletismo klubean dago Youness Assehli Igorreko lasterkaria.

Erredakzinoa

Gogoz itzuli da eta bere maratoi erdiko markea hobetutea dauka helburu; kro-sean bariz, Euskadiko Selek-zinoan barriro sartzea gurako leuke. Hilaren 26an jokatuko dan Arratiako Maratoi Txikian be lehiatuko da.

Denporaldi baten lehiatu barik egon ostean, uste dot emaitza onak lortzean zabizala aurten. Bai, itzuli egin naz. Urte bete eta erdi daroat itzultzen saiatzen, Promesa izanda 2023an itxi neutsanetik. Erritmoa berreskuratzen nabil. **Zeintzuk dira aspaldi honetan egin dozuzan lasterketak eta zelan geratu zara?**

Aurten, urte hasieran, CD Zornotzan federau nintzan. Harrezkerotzik, 18-20 bat lasterketa egin dodaz eta gehienetan podiuma egin, edo lehenengo bosten artean geratu naz. Azkena, Bilboko Aste Nagusian izan zan, orokorrean seigarren egin neban. Sano pozik nago, ondo atera zan.

Iraupeneko lasterketak eta krosa egiten dodaz. Errepidean, 5 eta 10 kilometroko lasterketak eta maratoi erdiak, batez be. Lasterketarik onena igazko abenduan egin neban Gasteizen: neure markarik onena lortu neban maratoi erdian 01:11:04 denporea eginda eta oso pozik nago. Aurten be, abenduan, barriro joango naz eta nire markea hobetuten saiatuko naz.

Kro-sean, zeintzuk dira egiteko asmoa daukazuzan lasterketak? Ointxe hasiko da kros denporaldia, urri bigarrenen. Zornotzako krosa hilaren 19an izango da. Han egongo naz, ea zelan ateraten jatan. Aurten Absolutuan lehiatuko naz, 25 urte daukadaz eta. Hor maila handia dago eta mailan egoteko gogor egin behar da lan. Ha-ta guzti be, maila handia egotea gustetan jata, zeure buruaren onena ateratera bultzatzen zaitualako. **Non ibilten zara gusturago kro-sean ala errepidean?** Errepidean ibilten naz gusturago, asfaltoan. Baina krosa be gustetan jata, asko ibili izan nintzan kro-sean 20 urte azpikoetan nengoanean. **Zeintzuk dira zure helburuak denporaldi honetarako?** Nire helburu garrantzitsuena nire maratoi erdiko marka personala

hobetutea da. Abenduan saiatuko naz. Beste helburu bat be badaukat: 10 kilometroko lasterketako nire markea (32:15) hobetutea. Urtaillean, Valentzian, saiatuko naz marka hori jasten. Ea zer urteten dan! Barriro kro-sean konpetidutea daukat aurreikusita eta Euskadiko Selekzinoan sartzea gurako neuke. Maila handia da baina burrukan egingo dot hori lortzeako. Gurako neuke Espainiako Txapelketetara-eta joatea Euskadiko Selekzinoagaz.

Junior eta 23 urte azpikoetan, Euskadiko Selekzinoan egon nintzan. Hirutan deitu eusten 2018 eta 2019 urteetan selekzinoagaz lehiatzeko. Atzen lasterketea Caceresen izan zan eta, zoritxarrez, oso txarto urten jatan karrera. Negarrez eta lur jota bueltau nintzan etxera eta hasi nintzan kolokan ipinten zertarako egin galapan. Jarraitu ala dana bertan behera ixteko zalantzan eta depresioak jota egon nintzan.

Etxera heldu nintzaneko hurrengo astelehenean, ez neukan motibaziorik entrenetako. Zertarako? galdezen neutsan neure buruari.

Hori gainditzeko urte bete luze, ia bi, behar izan dodaz, baina oin ondo nago, entrenetan nabil, oso pozik. **Kirolak horixe dauka, ezin zara-la % 100ean egon beti.**

Hori da. Ezin da sasoi betean egon beti. Horrek harritu ninduan, ze, egia esan, Caceresera joan aurretik Bizkaia eta Euskadiko Kros Txapelketetan ondo ibili nintzan.

Euskadira 2017an etori ginanean, Javier García Gil entrenatzaileagaz hasi nintzan. Nire esker ona adierazo gura deusat. Ondo hartu eta lagundu eustan, lasterketak prestatzen lagundu eta nire onena atera eban. Baina lehiatzeari itxi neutsa-



nean, gauzak neure kabuz egiten hasi nintzan. Nik uste neban gauzak ondo egiten nenbilala, baina ez. Lar eskatzen neutsan neure buruari eta lesino asko izaten nebazan.

Zerk animau zaitu barriro? Zerk ekarri zaitu barriro lehiaketetara? Krisi haretan, federatzeari itxi neutsan, baina lasterketak egiten jarraitu neban. Egiteagaitik, egiten nebazan, beste barik. Itota ibilten nintzan, pisu handia hartu neban, 57 kilo pisatzetik, 80 pisatzera pasau nintzan... Asko eskatzen neutsan neure buruari eta ezin nebanez, deprimidu egiten nintzan behin eta barriro. Ha-ta guzti be, lasterketak egin eta neure buruari itzuli behar nintzala esaten neutsan.

Eta, apurka-apurka, gauzak ondo eginda eta aholkuak emoten eustazan jenteari entzunda, egoera horretatik urteten joan nintzan. Gero, jenteagaz berbetan, nire anaia-aren entrenatzaileagaz hasi nintzan, Zornotzako, Antonio Gutierrez, "Guti"gaz, hain zuzen be. Honeri be nire esker ona: beti hartu nau ondo, ondo tratau, aholku onak emon... Igaz, konpetizinoetara bueltetea ebatzi nebanean, beragaz hasi nintzan. Beragaz prestatu neban Gasteizko lasterketea, nire markarik onena, eta beste karrera batzuk be bere eskutik prestatu nebazan.

Guraso, neba-arreba eta nire andreari esker itzuli naz atletismora. Hor egon dira nire ondoan egunero-egunero eta euren laguntzeari esker lortu dot guztiz ez etsitzea eta lehiaketetara itzultzea.

Arratiako Maratoi Txikian marka onak egin izan dozuz beti, ezta? Bai. Esandako moduan Arratiara 2017an heldu ginan eta 2018an parte hartu neban Arratiako Maratoi Txikiko 11 km-ko lasterketan. Helmugara, Durangalde Running taldeko lagun bategaz, -ordu- talde horretan nengoan- eskutik helduta sartu nintzan, lasterketea irabaziz. Bigarren urtean be bigarren egin neban, orduan be, taldeko bategaz batera eskutik helduta sartuta. Eta hortik aurrera, askotan egin dot bigarren edo hirugarren.

Uri bigarren honetan hainbat lasterketatan parte hartzeako asmoa daukat. Lehenengotik, hilaren 18an, Bilbon, gaueko maratoi erdian; hurrengo egunean, Zornotzako krosa jokatuko dot eta hurrengo astegoienean, 26an, Arratiako Maratoi Txikia. Topera nabil horreek prestatzen.

MENDIA

Igaz baino martxalari gehiagok emon dabe izena Areatzako Mendi Martxan

Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 4an izango da Areatzako Mendi Martxearen hamabigarren edizinoa. Guztira 419 ibiltarik emon dabe izena; igaz 382 izan ziran.

Goizeko 08:00retan ekingo deusie ibilbideari ibilbide luzea (27 km) eta ertaina (19 km) aukeratu daben partaideek. Luzea egin behar dabenak plazatik urtengo dira eta ertaina egitekoa diranak, antolakuntzeak ipinitako autobusean joango dira Bikotganera, handik hasteko. Plazan



MENDIA

Zizetan, Dimako mendi martxea hilaren 11n

Erredakzinoa

Zizetan mendi ibilaldia, ibilbide bi ditu aurten: bata 21 km-koa eta bestea 10 km-koa. Dimako frontoi txikitik urtengo dira ibiltariak, 08:00retan ibilbide luzea egiteko diranak eta 10:00etan, laburrekoak. Izen-emotea alde- z aurretik edo egun berean egin daiteke. Aurre-

egongo da markauta autobusak non hartu behar diran. Ibilbide laburreko martxalariak, 09:00etan urtengo dira plazatik, ibilbideari ekiteko. Aurten be, inoz erabili bako bizpahiru bide zabaldu dira martxarako.

Ostean pintxo- eta potea eta musikea egongo dira plazan eta opari pilo- a zozketatuko dira. "Opari pilo- a dago, 20 baino gehiago: Areatzako Bainuetxeak 4 pack bikotx emon ditu zozketarako; Keixarak 8 gaztai zati eta Ortu Kirolak eta Cros-ek mendi kirol materiala" azaldu deusie BEGUTURI antolakuntzatik.



ZINEA

Udako etenaren ostean, barriro be domeketan zinera joateko aukerea egongo da Igorren

Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 5ean hasiko dira emonaldiak. Betiko lez, saio bi egongo dira, 17:00etan, ume eta publiko guztientzako pelikula bat eta 19:30ean, publiko nagusiagora zuzendutako beste bat, momentuan karteleran dagoana. Denporaldia zabalduko dauan lehenengo pelikulea, Ute von Münchow-Pohl-ek zuzendutako animazinozko alemaniar film bat da, *Super Elfkinak*, euskeraz. Film hau, *Elfkinak* filmaren jarraipena da. Hauxe dino sinopsiak: "Elfkin txiki ausart batek, abentura handiak bizitzeko eta lana dibersinoagaz nahasteko ametsa dauka. Marrazkiak eta teknologia maite dituan Bo elfkinagaz egingo dau topo eta bere mundua guztiz aldatuko da. Arauei aurre egiten saiatuko dira, baina Lanskipolizia eta haren katu Polipette izango ditue atzetik".



MUSIKEA

IbonRGk eta Garazi Navasek kontzertua eskainiko dabe Artean

Erredakzinoa

IbonRG multiinstrumentistek eta Garazi Navas akordeoi-joleak *laquin vahu... çuçen henbilqueyen* kontzertua eskainiko dabe urri bigarrenaren 11n, 18:00etan, Arteako San Migel eleizan. 1545. urtean Bernat Etxepare poeta baxenafarrak, lehenengo aldiz, euskerara idatzitako liburu bat inprimidutea lortu eban, *Linguae Vasconum Primitiae*, hain zuzen be. Handik ia 500 urtera, IbonRG musikari seštaotarrak liburu haretako olerki guztiei musikea eta ahotsa emon deutse, *la-*

Egun berean, 19:30ean, 2026ko Oscar Sarietara aurkeztuko dan Oliver Laxek zuzendutako *Sirat* filma eskainiko da. Alabea *rave* baten desagertu ostean, aita, Luis, bila joango da Marokora, musika elektronikoko anbientetara, Esteban seme gazteagaz. *Sirat* berbeak bidea esan gura dau, zehatz "infernutik paradisura doan zubirik estuena". Pelikula honek Cannesko jaialdian Epaimahaiaren Saria jaso eban.


Hurrengo domekan

Lehenengo egunean, umeentzako pelikulea euskeraz da eta bigarrenean, nagusientzako. Holan, urri bigarrenaren 12an, *Jone batzuetan* filma eskainiko da 19:30ean. Filma Bilbon girotuta dago, abuztuan. "Jone (20 urte) aita eta Marta ahizta txikiagaz bizi da. Aitorrek, Joneren aitak, lana itxi behar izan dau Parkinsonaren ondorioak dirala-ta. Aldi berean, Bilboko Aste Nagusiko jaiak hasiko dira, eta Jone lehenengo aldiz maiteminduko da. Uda honetan, Jone, Olgagaz (beragaz maitemindu da) sentiduten dauan hilezkortasunaren eta aitaren gaixotasuna dala-ta bakarrik gelditzeko bildurraren artean biziko da" sinopsiaren arabera. 17:00etan, *Super Agente Hitpig* publiko guztientzako filma egongo da ikusgai.

quin vahu izeneko disko-liburuan. Lan horretan, Itxaro Borda, Mursego eta Verde Prato, besteak beste, izan dira kolaboratzaile. *laquin vahu* diskoko abestiak, Garazi Navas akordeoi-joleagaz batera egokitu ditu zuzenean joteko eta egokitzen horreek jasoten dira *Çuçen henbilqueyen* diskoan. *laquin vahu... çuçen henbilqueyen* kontzertuetan, IbonRGk eta Garazi Navasek musika garaikidea, *a capella* kantua, folk, *free impro* eta kantu lirikoa buztartzen ditue, euskal panorama musikaleko lan apurtzaileenetako bat eskainiz.

ERAKUSKETEA

Zeanuriko argazki taldeak bularreko minbiziaren gaineko erakusketea egingo dau urri bigarrenean



Erredakzinoa

Erakusketeak, gaixotasun honen gaineko sensibilizazioa eragin gura dau. Horretarako, bularreko minbizia izan daben andra biren gorputzen argazkiak erakutsiko ditu, baita alkartasuna adierazo gura izan daben zeanuriztarren arpegiak be. Erakusketea urri bigarrenaren 18tik 22ra egongo da Kultur Etxean eta inaugurazino egunean, gaiaren inguruko berbaldia egongo da. Proiektuak Zeanuriko Udala eta Mazala andren

alkartearen babesu dauka. Hau aurrera atera ahal izateko, deialdia egin eutseen argazki taldekoek herritarrei, urri lehengoan, arpegiko argazkiak aterateko, gaixotasuna bizi izan daben andrei alkartasuna adierazoteko. "Dakigunez, bularreko minbizia prozesu bat da andren irudiari modu emozional eta fisikoan eraso egiten deusana. Egia da gizonen % 1eri be eragiten deusala, baina 8 andratatik batek bularreko minbizia sufriduko dau, ikerketen estimazinoaren arabera. Horregaitik ipinten dogu arretean andregan" dino Juanma Nogales Zeanuriko argazki taldeko kideak. Gainera, itxura fisikoan, alderdi sozialean eta sexualidadean eragiten dauala eta hori adierazo gura dabela erakusketa honegaz dino Nogalesek. Minbiziak Marta Langue eta Carmen Nuñezen gorputzetan itxitako errastua erakusten daben argazkiak be egongo dira

ikusgai. "Gorputza erakusten daben andren irudiak izango doguz, minbiziak itxitako errastu guztiakaz, egoera horrerri zelane egin deusien aurre ikusi daiten; hau da, bular bat edo bi galtzea; eta horrek dakarren bildurra, bakarrik bizi izatea; ze, azkenean bildurra, bakarrik biziten da". Inaugurazino eguneko berbaldian, Languek eta Nuñezek zergaitik gura izan dabezan argazki horreek egin azalduko dabe; baita zelane bizi izan ebezan bildur eta zalantzez betetako egun hareek be. Gaiaren inguruko jentearen galderak erantzuteko psikologo bat egongo da.

Zeanuriko argazki taldea
Zeanuriko argazki taldea 8 lagunek osotuten dabe eta hainbat gairen inguruko proiektuak landuten dabez. Esate baterako, bularreko minbiziaren gaineko momentu honetan kofradien gaineko beste proiektu baten lanean dagoz.

MAGIA

Aritz Basterra ilusionistea, Aritxoi magoa, Diman estreinauko da

Erredakzinoa

Dinbi Danba Karanba alkarteak antolatuta, urri bigarrenaren 10ean, barikua, magia saioa egongo da Dimako Abaroan 19:00etan. Ez da lehenengo aldia Aritz Basterra, Aritxoi magoa, magia egiten dauala jentearrean, baina bai izango da bere lehenengo magia saioa. Ez da bakarra izango ilusionismoa egiten, beste batzuk be egingo dabez erakustalditxoak. Ostean, musikea egongo da jantzan egiteko Asier Armendariz, Armen, Djak ipinita. Dinbi Danba Karanba alkarteko Iker Urtiaga, Wallas magoagaz ikasten dago Aritxoi izen artistikotzat hartu dauan Aritz Basterra. "Bere lehenengo magia saioa egingo dau Aritzek. Nigaz parte hartzean dau askotan eta urte bat-edo daroanez ikasten, bere magia saioa egiteko momentua heldu jako. Beste lagun pare batek be, Dimako ume batek eta nagusi batek be egingo dabe truku pare bat. Gero Djak be pare bat truku ilusionismo egingo ditu. Nire atzetik datozen batzuei lekua emoteko da hau" azaldu deutso BEGITU Iker Urtiaga Wallas magoak.



ANTZERKIA ETA ZINEA

Antzerkia Igorreko Lasarte Aretoan eta Zinekluba

Erredakzinoa

Ohiko agenda kulturala bueltau da urrietan; antzerkia eta Zinekluba tartean. Holan, urri bigarrenaren 11n, 20:00etan, Tartean Teatro konpainiak *Non dira haurrak?* antzezlan eskainiko dau Lasarte Aretoan. Zineklubak, barriz, Jessica Hausner zuzendariaren *Club Zero* filma eskainik dau 15ean, 20:00etan. *Non dira haurrak?* antzezlanak zortzi urteko ume baten suizidio ahalegina kontetan dau, gizarte hautsi, krudel, zorrotz eta zeharo depresibo baten umeengan daukan eragina salatuteko. "Maddi txikia bolada txarra pasetan dabil. Ez dauka jateko gogorik, eskolako notek nabarmen egin dabe okerrera. Gurasoak zer egin jakin ezinda dabiz. Alabeak ez dau ezelango azalpenik emoten. Azkenean, Leire psikologoaren konsultara eroatea ebatzi dabe. Baina inork ezingo dau ahalegin tragikoa ekidin. Neskatxia hondartza ondoko harkaitz batzuetan agertu da larri zaurituta" dino sinopsiak.

Zinekluba

Igorreko Zineklubak *Club Zero* 2023ko pelikulea dakar. Jessica Hausner-ek zuzendutako pelikula hau, Austria, Frantzia eta Erresuma Batuko koprodukzioa da. "Miss Novak maistra bat da, eta eliteko eskola bateko taldeagaz alkatu da ikasle gazteei elikadura eskolak emoteko. Denpora gitxian, irakasleak lotura estua ezartzen dau bost ikaslegaz, eta gainerako irakasleak ez dira ohartzen zer gertatzen dan. Bat-batean, gertakariak bira oso arriskutsua izango dabe".

ONDAREA

Arkitektura ondareaz gozatuteko jarduera ugari egongo dira gurean

Aurten, 25. edizinoan, Bizkaiko Ondarearen Europako Jardunaldiek arkitektura hartuko dabe ardatz, arkitektura giltzarria dalako gizartearen bilakaeran.



Erredakzinoa

BEGITUREN eremuko 8 herrik hartuko dabe parte, ondarea ezetuten emoteko 13 jardueragaz. Euretako 7, urri bigarrenaren lehenengo hamabostaldian. Hilaren 4an, Arteak eta Zeanurik bisita gidatu bana eskainiko

dabe. Artean, *Artea: historia eta zaporea* izenpean. Bisitariak Elexabeitiko San Migel eleizea, "euskal landa eremuko ondarearen harribitxi konsiderau geinkena" ikusi, eta herrian pintxo-potea dastatzeko aukerea izango dabe. Jarduera hau egiteko aukera bi dagoz: zapa-

tuan 18:00etatik 20:00etara, eta hurrengo egunean, domekan, 11:30etik 13:30era arte. Izena udaletxean emon behar da edo 94 673 92 05 telefonoan. Zeanurin, bisita gidatua herriko perratokira eta Errotabarriko erro-tara izango da. Instalazinoak, per-ratzailen eta errotarien lana, eta

eraikin bien zaharbarritze lanak az-tertuko dira. Gero erakusketa areto batera bisitea egingo da. Interes-dunak herriko plazan batuko dira, ez dago erreserbea egin beharrik.

Hurrengo astegoienean, Areatzan, Artean, Bedian eta Zeanurin

Areatzan, hurrengo domeka-rako, hilak 12, antolatu dabe he-rrian zeharreko ibilbide gidatua *Areatza mendeetan zehar* izen-pean, Angel Larrea historialaria-ren azalpenakaz. Areatza uribil-dua Kultura Ondasun izentauta dago, Monumentu Moltsoen ka-tegorian. Bisitea 12:00etatik 14:00etara izango da eta alde-z aurretik izena emon behar da 94 673 90 10 telefonoan edo *areatzakoudala.areatza@bizkaia.org* helbidean. Ibilbide bera be egingo da 19an, gaztelaniaz.

Artean, hilaren 11n zapatuan, 18:00etan, *laquin vahu... çucen henbilqueyen* izeneko musika emonaldia egongo da San Migel eleizan. Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuan oinarrituta, IbonRG multiinstru-mentistek eta Garazi Navas akordeoi-joleak, *Çucen henbilque-yen* diskoa grabau dabe Arteako San Migel eleizan. Zuzeneko emonaldia euskal panorama musikalean jorratzen diran lan apurtzaileen adibidea litzateke. Izena udaletxean edo 94 673 92 05 telefonoan emon behar da.

Egun berean, Bedian, 10:00eta-tik 13:00etara, herriko eraikinen ibilbide historiko gidatua egiteko aukerea egongo da. Eleizea, uda-letxea, jauregia eta Bedikoleako zentrala, herriko zubiak, Tosuban-

do torrea eta Utxaraingo errotea ikusiko dabez bisitariak, 5,5 km-ko ibilbidean. Izena Bediako udale-txean, 94 631 21 01 telefonoan 16:30etik 19:30era astebarruan edo *liburutegi@bedia.eus* helbide-ra idatzita emon behar da.

Ondarea ezetuteko beste ibilbide gidatu bat be egin daiteke urri bigarrenaren 11n, Zeanuriko Eleizondo moltso monumentala ikusteko. Moltsoa, Andra Mari parrokia XVIII. mendeko eleizeak, Piedade errendegi baselizeak eta Nestor Basterretxearen ku-rutzeak osotuten dabe. Bisitea 11:00etatik 12:00etara izango da eta bisitariak herriko plazan ba-tuko dira. Ez dago erreserbarik egin beharrik.

Bigarren hamabostaldian be hainbat bisita eta ibilbide

Hilaren 16an, eguena, Lemoan, zementuaren fabrikazinoaren barri emongo dabe Cementos Lemona S.A. enpresan egingo dan bisita gidatuan. Hurrengo zapatuan, 18an, Errotaberri, Arratiako errota zaharra ikusteko aukerea egongo da Arantzazun. Domekan, hilak 19, ibilbide gi-datu bi egongo dira: bata Diman eta bestea Zeberion. Diman, Antzasti Euskaldunon Etxean, baserri-etxearen bilakaerea Di-man, XVI. mendetik XIX. mende-ra azalduko dabe eta Zeberion, barroko garaiko leihoak ikusteko Barañaotik Argiñorako ibilbidea egiteko aukerea egongo da.

Amaitzeko, hilaren 25ean, za-patua, Zeanurin, Barazarreko jauzi hidroelektrikoaren aztarna arkeologikoak ikusteko ibilbide gidatua egongo da.

DUNBA

Arratia Institutua, gure etorkizuna eregiteko lekua

Arratia BHiko DBH4ko ikasleak

Arratia Institutuan 600 ikasle, 3 hezitzaile, 90 irakasle, atezain 2, 3 garbitzaile, autobusaren ardura-dun bat, administrazinoko langile 2 eta 7 langile jantokian (3 suka-dean eta 4 jagole) alkartzen gara egunero. Guztion artean, gure eguneroko lana eta bizipenak buztartuz, kurso barriari ilusinoz ekin deusagu. Ikasturte barria hasten dan bakotxean, erronka barriak eta aukera barriak daukaguz aurrean. Aurten be, danon lehentasune-tako bat izango da ikasleon ondoi-zatea eta zaintza ahalik eta modu egokienean kudeatzea. Izan be, gure hezkuntza proiektuaren mui-nean ez da bakarrik ezagutza aka-demikoa dagoan zeozer, gazteon garapen integrala baino: ikastea,



biziten ikastea eta alkar zaintzea. Horregaitik, eta asko kezkatzen gaitualako gure asmo nagusietako bat da osasun mentala zaintzea. Bide horretan, ikasle batzuek

behar bereziak izan ahal dabe-zala kontuan hartuta, "konfian-tzako persona" bat izentatzen jakie. Irakasle hori ikaslearentzat erreferente eta lagun izango da,

zalantzak argitzeko eta momentu gatz baten entzule eta bidelagun izateko. Helburua da ikasleak bakarrik ez sentidutea eta beti norbaiten babesa eta gertutasu-na izatea eskura. Helburu bardinagaz, DBH4ko ikasle batzuk enbaxadore taldea osotuten dogu. Holan, institutura datozen ikasle barriei harrerea egiten deutsegu eta lagundu egiten doguz institutua ezetu eta bakarrik sentidu ez daitezan. Horrez gainera, Arnasgunea indartzen eta apaintzen jarrai-tuko dogu. Leku berezi bat izatea gura dogu, ikasleok beharrezkoa dogunean atsedean hartu, lasaitu eta berrindartu ahal izateko. Gela horretan erosotasuna eta lasaita-suna buztartuko doguz, gazteon ondoizatea sustatzeko. Ikastetxe bizia izanik, zarata eta mobimen-

tua beti presente dagoz; horre-gaitik, beharrezkoa ikusten dogu holango espazio bat, non ikasleok arnasa hartu eta geure erritmoa berreskuratu ahal dogun. Gainera, hainbat proiektugaz ja-rraituko dogu: Hezikidetz, A2030 eta euskerearen sustapena izango dira gure lan-ildo nagusiak. Osasun mentalagaz lotuta, Telmo Lazkano etorriko da gazteokaz hausnartze-ra ea pantailek ze eragin daukien geure osasun mentalean eta horri aurre egiteko boluntarioakaz ko-sorkuntza tailer bat be egingo dau. Arratia Institutua ez da bakarrik ikasteko lekua: harreman sare bat da, biziteko eta hazteko espazioa. Gure etorkizuna eregiteko lekua.



AGENDEA

URRI BIGARRENAK 1 ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Hilaren 9ra arte, 11n izango dan baba-jan herrikoirako txartelak salgai Herriko Tabernan eta Montero tabernan. Nagusiek, 12 euro; umeek 6 euro.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Euskal Jaiko bazkariko txartelak salgai hilaren 8ra arte 22 euroan, Bainuetxea, Batzokia, Bixer, Eguzki, Hagina eta Ixua tabernetan. Aukera beganoa Haginan.

18:00etan, Jubiladuen eguneko meriendea udaletxeko arkupetan. Uparan jubiladu eta pensionisten alkarteak antolatuta.

ARRATIA

Aikoren jantza ikastaro ibiltaria urri bigarrenetik bagilera, Areatza, Artea, Dima, Igorre eta Zeanurin domeka arrastietan. Oinarrizko maila 17:00etatik 18:30era eta aurreratua 18:30etik 20:00etara. Izena emoteko: www.aiko.eus webgunean edo 634 423 539 telefonoan.

ARTEA

Hilaren 5era arte, *Artearen ibilbidea* erakusketea plazan.

BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 9ra arte, hilaren 11n egingo dan *Kolaziñotik Bediara* ibilbide gidaturako izen-emotea Ludotekan.

DIMA

Dimako liburutegian lagunduteko izen-emotea udaletxean.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

Lemoatx Trail martxa zein lasterketetarako inskripzioa egiteko aukerea zabalik labur.eus/Lemoatxtrail helbidean.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

URRI BIGARRENAK 2 AREATZA

18:00etatik 19:30era, Uparan jubiladuen eta pensinodunen alkarteak hilaren 16an egingo dauan txangorako izen-emotea, lokalean.

IGORRE

19:30ean, pizza-potea Axular Herriko Tabernan.

URRI BIGARRENAK 3 ARANTZAZU

GC Talks. 19:00etan, egiaztagiriak jasotea; 21:30ean, kontzertua: Kantauri Beat taldea. Geocoaching-aren 25. urtebetetzea.

AREATZA

18:00etatik 19:30era, Uparan jubiladuen eta pensinodunen alkarteak hilaren 16an egingo dauan txangorako izen-emotea, lokalean.

ARTEA

Herriko Kultur Txupina. 17:30ean, txupina Aita Mari eta Palestinako kideen eskutik, palestinar herriari omenaldia, ostean Arantzarte jantza taldearen emonaldia; 18:30ean, Hontzaranga; 21:00etan, Radio Revolucion taldearen kontzertua.

AskeBizi Arratienek antolatuta, Ekologia, Autogestioa eta Osasuna V. Jardunaldiak. 17:00etan, Jardunaldien aurkezpena; 18:00etan, Pere Rodas medikuaren berbaldia *Osasunaren oinarriak*; 19:00etan, *Ayurveda etxean, erraza eta hurbila* Mireia Ruiz therapeutearen eskutik; 20:00etan, *Yoga eta meditazioa* Alfonso Esteban Yoga irakaslearen eskutik; 21:00etan, musikea. Basoa Defendatzaileen Etxean.

DIMA

Indusiko jaiak. 17:00etan, Briska eta Tute Txapelketak; 19:00etan, txitxi-burduntzia; 21:00etan, Eingo; 21:30ean, alkartasun kiñua Palestinari; 22:00etan, txokolatea.

URRI BIGARRENAK 4 ARANTZAZU

GC Talks. 10:00etatik 12:00etara, egiaztagiriak jasotea; 10:00etan, berbaldia: *Nola antolatu geocoaching ekitaldi bat*; 11:30ean, berbaldia: *Zer demontre dira geodesafioak*; 14:00etan, taloak eta geocoachers-en bazkaria herriko plazan; 16:00etan, Comikaching podcast-aren grabazioa; 18:00etan, galderak eta erantzunak zure aztertzaileagaz; 21:00etan, afaria, queimada eta musikea.



Zaintzaren gaia landuten dauan umeentzako antzezlan
Lemoako Kotxepin Kultur Etxean

Maria Urcelay eta Jon Casamayor Lemoako Kotxepin Kultur Etxean egongo dira urri bigarrenaren 11n, 18:30ean, Lari Produkzioak-en *Zaintzaren dantza* 3 eta 12 urte bitarteko umeentzako antzezlanagaz.

Lari Produkzioak taldea 2019an sortu zan *Meri, Mari eta Lari* ikus-kizunagaz. Antzezlan horrek sexu eta genero ugariak, familia-eredu desbardinak, bildurrak saihesteko moduak eta askatasuna eukazan hizpide. *Zaintzaren dantza* lanak jarraipena emoten deutso helburu horrerri, eta mezua zaintzaren eremu desbardinetan ipinten dau.

Sinopsia

Meri ama izan da. Bederatzi hilebetez haur bat euki dau barruan, eta haren babesle eta zaindaria izan da. Zalantza askoren iturri bihurtu da umea. Bere lagun Marigaz batera (genero ezbitarreko personaia), eta horrek eskainiko deusn ikuspegi zabalari esker, zalantza horreei guztiei erantzuten saiatuko da, melodia akuilagarri, personaia maitagarri eta istorio biziakaz batera egingo daben bidean.

AREATZA

Areatzako Mendi Martxea. 08:00retan, ibilbide luze eta ertaina egingo dabenen urtekerea; 09:00etan, ibilbide laburrekoen urtekerea, plazatik.

ARTEA

Herriko Kultur Txupina. 11:00etan, Zaztaparrakaz libertidu; 16:00etan, Igel Txapelketea; 18:00etan, Mikelen Cochecitos de mierda-ren lasterketea; 21:00etan, bertso-afaria. Bertsolariak: Aiala Irurtia, Ekhi Zuluaga, Enara Gallastegi eta Iradi Barrenetxea.

AskeBizi Arratienek antolatuta, Ekologia, Autogestioa eta Osasuna V. Jardunaldiak. 09:00etatik 14:00etara, txango botanikoa Arratian zehar, Mari Feli Prieto bedarlari tradizionalak eta Begoña Quevedo biologo eta irakasleak lagunduta; bazkaria norberak dakarrenagaz; 18:00etan, *Medikuntza alopatikoaren yatrogenia* Belen Igual medikuaren eskutik; 19:00etan, *Elikadura gordina eta beronen onurak eritasun ohikoenetan* Angel Borrell medikuaren eskutik; 20:00etan, *Arimaren elikagaiak* Xavier Uriarte medikuaren eskutik; 21:00etan, musikea eta jantzea. Basoa Defendatzaileen Etxean.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. 18:00etatik 20:00etara, *Artea: historia eta zaporea* bisita gidatua eta pintxo-potea herrian.

DIMA

Indusiko jaiak. 12:00etan, mezea; ostean, Gazte Barri Dimako jantza taldearen emonaldia; 13:00etan, barauskarria; 14:00etan, Baba Lapiko Lehiaketea; 14:30ean, bazkaria; ostean bertsolariak: Ibai Amillategi Omaetxebarria eta Ander Elortegi Garatea; 17:00etan, umeentzako ekintzak; 19:30ean, Berakatz-zopa, Tortilla eta Ogizko Tostada Lehiaketea; 20:00etan, afaria; 21:00etan, Jainaga eta Narbaizagaz erromeria; 22:00etan, auzokoan antzerkia; ostean, zozketea eta txokolatea.

IGORRE

Kiñu Gazteteak antolatuta, Euskal Herriko pegatineroen topaketea. 11:00etan, Euskal Herriko pegatina bildumagileen urteko topaketea Kiñu Gaztetearean; 14:30ean, bazkaria.

ZEANURI

Altzustako jaiak. 14:00etan, auzo bazkaria; 16:45ean, Briska Txapelketarako izen-emotea; 17:00etan, Briska Txapelketea; 17:30ean, Kofradien Arteko Bola Txapelketea; 19:00etan, Kittu erromeria, bitartean mokautxoa danontzat.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. 11:00etan, *Perratokia eta Errotabarriko errota* bisitaldi gidatua. Plazan.

ZEBERIO

07:30ean, Austarrik antolatutako astegoienspasa. Auñamendi-Anie (2.507 m), edo Utziagaina (1.618 m) eta Ardibidegaina (1.309 m), Armotoa (1.375 m).

URRI BIGARRENAK 5 ARANTZAZU

GC Talks. 09:30ean, woodcoins-en trukea; 10:00etan, geocoacher-en arteko herri kirolak; 14:00etan, taloak eta bazkaria.

ARTEA

Herriko Kultur Txupina. 11:00etatik 15:00etara, Truke eta bigarren eskuko azokea. Parte hartzeako 652 749 735 telefonora deitu; 12:00etatik 15:00etara, pintxadea Unai EPs-gaz; 17:00etan, Euskal Herriko Casteller taldearen tailerra; 19:00etan, txokolatea.

AskeBizi Arratienek antolatuta, Ekologia, Autogestioa eta Osasuna V. Jardunaldiak. 09:00etan, txangoa Arratian zehar ur sulfurosoen eta metal uraren onurak eta erabilpena ezetuteko; 12:00etan, herri sendagaien erakustaldia; 13:00etan, *Ahotsa eta isiltasuna* Patricia Alvarez medikuaren eskutik; 14:00etan, talde bazkaria eta agurra. Basoa Defendatzaileen Etxean.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. 11:30etik 13:30era, *Artea: historia eta zaporea* bisita gidatua eta pintxo-potea.

IGORRE

11:00etan, Igorreko XI. Duatloi Txikia. 12:00etan, Feminismoa lubaki Euskal Herriko Gazte Feministen Baterajotzearen aurkezpena Kiñu Gaztetearean; ostean, mural margoketea eta pikoteoa. 17:00etan, zinea, *Super Elfkinak*; 19:30ean, *Sirat* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

Altzustako jaiak. 16:00etan, Mus Txapelketarako izen-emotea; 16:30ean, Mus Txapelketea.

URRI BIGARRENAK 6 DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

11:00etatik 13:00etara, *Ikasi mugikorra erabiltzen. Egunero oso erabilgarriak izan daitezkeen aplikazioak* tailerra.

URRI BIGARRENAK 7 IGORRE

Bonodenda kanpaina zemendiaren 23ra arte herriko 30 komertziotan.

18:15ean, Arimen Gaua antolatuteko bilerea Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAK 8 BEDIA

18:00etan, Eleizalde jubiladu eta pensionisten berbaldia: *Elikadura osasuntsu eta orekatua*. Eskoletan.

19:00etan, jai Batzordearen batzarra

begitu 457
2025eko urri bigarrenaren 1a

udaletxean.

URRI BIGARRENAK 10 ARANTZAZU

Sanfaustoak. 21:30ean, Cover Band taldearen kontzertua; 00:30ean, DJ Gomi eta DJ Bitxota.

DIMA

19:00etan, Dinbi-Danba Karanba. Aritxoi magoaren lehenengo magia saioa; ostean, DJ Armen. Abaroan.

URRI BIGARRENAK 11 ARANTZAZU

Sanfaustoak. 09:00etan, Jose Luis Atxutxa Mugari Bira plazatik; 14:30ean, baba-jana; 16:30ean, DJ Jonkas eta Briska Txapelketea; 21:30ean, karaokea Herrikoan.

AREATZA

Euskal Jaia. 10:00etan, Nekazaritza eta Artisautza Azokea; 12:00etan, Areatzako Bandeagaz kantuan eta jantzan; 13:00etan, Bizkaiko Gaiteroak; 15:00etan, bazkaria; 16:30ean, Aikopakogaz kantaldia; 18:00etan, Aikogaz jantzaldia; 20:30ean, berakatz-zopea; 22:00etan, erromeria Zutik taldeagaz.

ARTEA

Ondarearen Europako Jardunaldiak. 18:00etan, *laquin vahu... çucen herbilqueyen* emonaldi musikatua San Migel eleizan.

BEDIA

Ondarearen Europako Jardunaldiak. 11:00etan, *Kolaziñotik Bediara* ibilbide gidatua plazan.

16:00etan, 12 eta 16 urte bitartekoentzat, urtekerea Olaberria kartingera.

DIMA

Zizetan mendi martxea. 08:00retan, 21 km-ko ibilbidea egiteko urtekerea; 10:00etan, 10 km-ko ibilbidea egiteko urtekerea. Frontoi txikian.

IGORRE

20:00etan, Tartean konpainiaren *Non dira haurrak?* antzezlan
Lasarte Aretoan.

ZEANURI

Ondarearen Europako Jardunaldiak. 11:00etan, *Eleizondo moltso monumental*a bisita gidatua eta argazki erakusketea. Plazan.

URRI BIGARRENAK 12 ARANTZAZU

Sanfaustoak. 10:30ean, mezea; 11:00etatik 15:00etara, Gure 5. Azokea; 12:00etan, *DesOrekatua* magia ikuskizuna; 13:15ean, Arbasoak *Kantu kontari* kontzertuan; 18:00etan, Ganso&Cia-ren *Welcome and Sorry* kale antzerkia; 19:00etan, txokolatea.

AREATZA

Ondarearen Europako Jardunaldiak. 12:00etatik 14:00etara, *Areatza mendeetan zehar* Angel Larreagaz bisita gidatua plazatik urtenda.

IGORRE

Garbeko Azokea. 10:00etan, irekierea; 11:00etan, Laguntasuna Erraldioen Konpartsaren kalejirea Goiko Plazatik; 12:10ean, herri kirol erakustaldia: Julen Mendieta, Xabier Garcia "Utxu", Manex Izagirre eta Done Intxausti azkolariak; 13:00etan, sari banaketea.

17:00etan, zinea, *Super Agente Hitpig*; 19:30ean, *Jone batzuetan* Lasarte Aretoan.

URRI BIGARRENAK 13 ARANTZAZU

Zemendiaren 3ra arte aurkeztu daitekez argazkiak, III. Argazki Lehiaketarako. Gaia: Arantzazuko arbolak eta basoak, [idazkaritza.arantzazu@bizkaia.org](mailto: idazkaritza.arantzazu@bizkaia.org) helbidera bialduta.

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

BULEGOA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Arrigorriagako erdigunean 43 metro karrutuko lokala. Guztiz instalatuta eta altzariz horniduta. Interesdunek deitu 665 709 651 telefonora.

SALTZEAN DODAZ

Lowepro argazkilaritza mobila gorria, neurriak: 26x34x11, prezioa: 35 euro. Umeentzako tipi ohea. 90x190 cm neurrikoa, 90 cm-ko zabalerako koltxoirako. Somierra zoru gainean. Kolorea: egurra eta zuria eta prezioa: 90 euro. Interesdunek deitu 661 273 192 telefonora.

GELA BEHAR DOT ALOKAIRUAN

Pisu konpartidu baten, persona bakar batentzako gela bat behar dot alokairuan. Telefonoa: 642 912 390.

MAHAIA OPARITZEN DOT

Eskola adineko umeentzako mahai aproposa oparitzen dot. Telefonoa 630 363 971.

DORDOKEA TOPAU DOGU

Dordoka bat topau dogu Igorren, San Juan auzoan. Zurea bada, 611 617 137 zenbakira deitu.

KIMIKAKO KLASEAK HARTU GURA DODAZ

Bigarren Batxilergoko kimika klaseak

euskeraz jasoteko nonoren bila nabil abuztuaren hasieratik, ordutegi malguagaz, gero, klaseak urte osoan zehar izateko asmoz zapatuetan ordu biz. Deitu: 638 889 851.

SALTZEAN DOT

Ezkaraiko aparadore bat, 1,50eko mahai eta aulkiak, haretx egurrezkoak. Oso egoera onean. Banan-banan erosi ahal dira. Interesdunek deitu 657 777 542 telefonora.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rock School. Gitarra klaseak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528 telefonora edo idatzi a.harillo.gracia@gmail.com helbidera.

AUTOA KONPARTIDUTEA

Leioako campusera doazen Arratiako EHuko ikasleen bila nabil kotxea eta gastuak konpartiduteko. Telefonoa 690 307 910.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Areatzako Udalak emondako *Dolu bat eta dolu bi* liburuaren ale bat.

Angel Larrea (Galdakao)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Non dira haurrak?* antzezlanerako.

Arantza Etxebarria (Bilbo) Amaia Goti (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 23 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %

PEDRO AUTOZERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
 Tel. 94 631 15 26

KIRRU
 ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROBER
 -
 SABINO ARANA 38
 IGORRE
 -
 Tlf. 94 631 92 00

GORBEIALDE
 LANDA GARAPENA
 ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
 GARAPENEAN LAGUNTZEN

Ipini zure iragarkia Begitun
649 979 115
inigoirua@begitu.eus

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Blitzo dego jabetza
 -Salmentan zein alokairuan
 Lurak (erakitzeko, landak, basak...)
 Etxebizitzak (pisoak, baserriak, etxak...)
 Garajeak
 Lokal komertzialak
 Publikoak...
 -Solartzeak

Bidua dego proiektu
 Erakiri berriak erakitzeko
 Informatika
 Arkitektura-proiektuak
 -Borne diseinua
 -CEE eta IIE-ak
 -Hirigintza aholkularitza
 -Negozioak irekitzeko kudeaketa

Gureak: Agirre 28, bilbo - 48901
 Telefonoa: 94 631 31 89 - 435 96 31 31
 E-mail: arratia@arratia.com
 web: www.arratia.com

Kili-Kili
 Arropa eta Punturak

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
 Tel.: 94 473 43 81

BIXER TABERNA

Boko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak

Sabino Arana, 3. 3a
 Igorre 48140 Bizkaia
 ☎ 94-673-70-87
 ☎ 609-79-40-54

Graduatinoak
 Ikusmen terapia
 Ikusmen gubitua
 Begiko tentsioa
 Lentillen adaptazioa
 Kiroletarako betaurrekoak
 Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
 ☎ 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ASESORIA GORBEIALDE

Juridikoa - Fiskala - Landak - Kontularitza
 Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
 Tínoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
 E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

EUSKAL JAIA 2025 AREATZA

Urriak 11, zapatua

10:00 Nekazaritza eta Artisautza Azoka.
12:00 Areatzako Bandarekin kantuan eta dantzan.
13:00 Bizkaiko Gaiteroak.
15:00 Bazkaria.
16:30 AIKOPEKOrekin kantaldia.
18:00 AIKOrekin dantzaldia.
20:30 Berakatz-zopa.
22:00 Erromeria Zutik taldearekin.

Urriak 12, domekea

12:00 *Areatza mendeetan zehar* ibilbidea herrian zehar, Angel Larreak gidatuta.
Ondarearen Europako Jardunaldiak.

Urriak 19, domekea

12:00 *Areatza a través de los siglos* ibilbidea herrian zehar, Angel Larreak gidatuta.
Ondarearen Europako Jardunaldiak. (Gazteleraz)

*Aurretik izena eman behar da udaletxean
edo areatzakoudala.areatza@bizkaia.org
helbidean. Leku-kopuru mugatua (35 lagun)



BEGITUK **kazetaria** behar dau

Zertu Kultur Elkartearen kazetari zereginetarako lan eskaintzea.



Eskatzen dogu

- Kazetaritza edo ikus-entzunezko ikasketak.
- Webgune eta sare sozialen kudeaketan ezagutza.
- Argazkigintzan eta bideogintzan ezagutza.
- Idazketa maila altua.
- HABEko C1 euskera maila edo baliokidea.
- Izaera dinamikoa eta hartu-emonetarako gaitasuna.
- Gidabaimena eta motordun ibilgailua izatea.

Balorauko dogu

- Erredaktore beharretan esperientzia.
- Arratiarra izatea edo Arratia, Ubide edo Zeberion bizitea.
- Maketazino eta diseinu ezagutzak.
- Idatzizko bizkaierearen ezagutzea.
- HABEko C2 euskera maila.
- Kurrikulumagaz batera, argitaratutako testu edo lanak bialtzea.
- Genero bardintasunaren inguruko ezagutza edo formazinoa eta genero ikuspegia txertatzeko esperientzia eta sensibildadea.
- Ekitaldi eta aurkezpenetan parte hartzeako jarrera eta komunikazino gaitasuna.
- Prestakuntza jarraiturako interesa (ikus-entzunezko barrikuntzak, kazetaritza etikoa, genero ikuspegia...).
- Eduki digitalen inguruko sormena: podcastak, sare sozialetarako bideo laburrak, TikTok/Instagram-en Reelsak egiteko trebetasuna...

Eskaintzen dogu

- 30 orduko lanaldia astean.

Interesa daukazuenuok kurrikuluma bialdu
daikezue urri bigarrenaren 31 baino lehen, helbide
honetara: begitu@begitu.eus